

INCANSABLES, 35 URTE KALEAK ALAITZEN

Juan Arzallus • E. Garmendia



Incansables (1971): Domingo Castro "Sietemesinos", Joaquín Ortega "Canario", Jesús María Zalakain "Pipas", Felipe Sagarna "Zapa" eta Francisco Esnaola "Paotxa".

Ergobiako jaiak, 1970eko abuztuaren amaieran, azken egunetan bost musikarik bat egin zuten Astigarragako auzoa fandango, arin-arin, Tolosako inauterietako habanera, kalejira eta beste hainbat herri doinurekin girotzeko saioan. *Itxura ona duela dirudi! -diote beren artean. Eta datorren urterako txaranga bat osatuko bagenu?* Ergobiako jaiak azkenak ziren inguru honetako musikarientzat.

Laburbilduz, horrelakoa izan zen gure herrietan barrena giroa alaitzen duten txaranga askoren eredu izan den eta izango den Incansables taldearen sorrera. Garrantzizko urrats hori honako partaide hauek egin zuten:

- Joaquín Ortega "Canario" (saxofoia) hernaniarra.
- Felipe Sagarna "Zapa" (kaxa) hernaniarra.
- Domingo Castro "Sietemesinos" (tronpeta) billabonatarra.
- Jesús María Zalakain "Pipas" (bonbardinoa) billabonatarra.
- Francisco Esnaola "Paotxa" (tronboia) tolosarra.

Beren artean hitz egindakoa aurrera ateratzeko asmoz, 1971ko udan bildu ziren, Incansables ize-narekin, aipatutako bost musikariak beren lehen emanaldiak emateko. Leitzako jaietan izan zuten estreinaldia, eta jarraian, Goizuetara jo zuten; hori nahikoa ez eta Ergobiako festetan ere aritu ziren giroa alaitzen, beraz, hamabi egun eman zituzten etengabe musika jotzen. Izugarria izan zen gazte haientzat, festa ugari ezagutzeaz gainera, lagun berriak egin, parrandan ibili eta sakelerako dirua lortzeko aukera bikaina izan zen.

Garai hartan, kaleko musikaria preziatua izan ohi zen oso eta, zenbaitetan, baita miretsia ere; ez zen aparteko ezer behar jendea berengana inguratu eta saltoka eta dantzan hasteko. Musikariak berehala sartzen ziren giroan, eta gerturatzen ziren gazteak beren alaitasunaz kutsatzen zituzten, jai giroa ahal bezainbeste luzatuz. Behar adina jan-edana edukiz gero, nahikoa zen musikak eta dantzak hainbat egunez irauteko, ez zuten gehiagorik behar.

Garai hartan ohikoa zen txaranga bertan dunbala edo txindatak jotzen zituen partaiderik ez egotea. Bi musika tresna horiek herrietako elkarteek, koa-drilek edo txaranga kontratatzen zuten taldeek eramaten zituzten, eta herri edo auzo guztietan izaten zen postu horiek betetzeko norbait. Incansables taldearekin modu horretan aritutakoen artean ditugu: "Larra" Andoainen, "Pituso" Leitzan, "Fitero", Félix Mateo edo Lizarralde, besteak beste. Baina txarangaren norabidea ikusirik, beharrezkoa ikusi zuten dunbala eta txindatak, gainerako musika tresnak bezala, taldeko kide baten esku jartzea, eta ordu arte laguntzaile moduan ibilitako zenbait lagun taldeko partaide izatera igaro ziren. Aipatzekoa da "Pituso" izan zela Incansables txaranga-ko lehen dunbala.

Incansableseko haizezko musikariei dagokienez, badute ezaugarri bat komuna: beren jatorri musika. Musika munduan lehen urratsak beren herrietako Musika Bandetan egin zituzten denek; beraz, guztiak dira atrila eta batutarekin aritutako musikariak, baita "Sietemesinos" ere, hark Hernaniko Bandan jo baitzuen Billabonakoa desagertu zenean (1962).

Ohikoa zen, 70eko eta 80ko hamarkadetan, nor bere txaranga-ko partaide izateaz gain, elkarte kultural, gastronomiko nahiz bestelako taldeetan sortzen ziren txaranga-ko aritzea. Horietako zenbait tek indar handia hartu zuten, eta besteak beste, kirol ekitaldietan eta omenaldietan parte hartzen zuten: *Txatarra, Los Anastasios, Los Pomposos...*

Hernaniarren oroitzapenean daude, oraindik, *Txatarra* txaranga-arekin kalez kale diru eske ibiltzen zireneko garaiak, esaterako. Ez zuen axola zer



Txaranga 1974 eta 1975eko Ihauterietan.

ordu zen, jende artetik maindirea atera eta bal-koietatik jaurtitzen zituzten txanponak bilduz igarotzen zen denbora, eta une oro entzuten zen musika, goizeko hamaiketan nahiz arratsaldeko zazpian.

Horrez gain, Txatarra txaranga, 1968ko Orioko jaietan ospatu zen aulki mugikorren lehen estropadara joateko gonbita izan zuen; bertan Oxford eta Cambridgek hartu zuten parte. Etengabe aritu ziren musika jotzen larunbata, igandea, astelehena, asteartea... dirua amaitu eta udaltzainek inoiz joateko asmorik ba ote zuten galdetu zieten arte.

Los Anastasiosekin Bartzelonara joan ziren 1978. urtean, Kopako finalerdian Reala animatzera, eta Gijonen ere egon ziren, Realak irabazi zuen lehen Ligan.

Hasierako urteetan herriz herri jotzen zuten abesti kopurua urria zen. Hala ere, udaz uda gehien entzuten ziren abesti berriak pixkanaka ikasi eta abesti multzoa handitzea lortzen zuten.

Incansableseko kideek erraztasun handia zuten, eta ziurrenik oraindik ere badute, abestia entzun eta notaz jabetu eta doinua nork bere musika tresnara egokitzeo, bigarren ahotsak eta abar eginez.

Hobetuz joateak eta doinu berriak jotzeko gogo horrek ekarri zuen bigarren tronpeta taldera ekartzeko beharra; Imanol Mujika izan zen aukeratua eta aipatzekoa da hau ere Hernaniko Bandan bi urtez aritua zela. Lau urte eman zituen taldean, eta ondoren, utzi beharra izan zuen erremontista moduan zeraman karrera ona zela eta; Alberto Santosek (Orereta) bete zuen haren lekua. Altuna akordeoi jotzailea ere izan zen taldean, 1972. urtean nagusiki.

Emanaldi asko zituzten, eta gero eta ugariagoak ziren; gauzak horrela, saxo bat gehiago hartzea erabaki zuten. Erabaki horretan eragina izan zuen Canariok, gaur egun oraindik txaranga jarraitzen duen sortzaile bakarrak, eta hark 1969. urteaz geroztik berbenetako orkestra batean zuen parte-hartzeak, zenbaitetan bi taldeen emanaldiak bat baitzetozen. Gainera, txarangarako ordezkia aurkitzea orkestrarako aurkitzea baino errazagoa zirudien; egiteko hori José Mari Zaballos eta Manolo Roperok (Tolosa) bete zuten, hurrenez hurren.

Incansablesen historiaren lehen erdialdean batez ere, taldeko partaideek txarangaren agerpenekin uztartzen zuten beren lana, eta ahalegin handia egin behar zuten musikan zituzten eginbideak bete eta taldea bana ez zedin. Batzuek lan orduak pilatzen zituzten, udan denbora gehiago edukitzeo, eta beste batzuek, berriz, txandak aldatzen zituzten; gogorra zen, askotan.

Une txarrak ere igaro ditu txaranga honek bere historian zehar, eta gogorrena, zalantzarik gabe, 1980an izan zen, Felipe Sagarna "Zapa" taldeko kidea hil zutenean. Argi zegoen pertsonaia herrikoiak helburu zirela, eta une hartan nor zen Incansables baino herrikoia? Txarangako kide guztiak beldurrak jota zeuden, eta are gehiago Hernanin, urte hartan bertan, zazpi pertsona gehiago hil zituztela ikusita. Taldea desagitea ere pentsatu zuten, baina, zorionez, ez zen halakorik gertatu eta aurrera egin zuten.

Aldaketa ugari izan ziren taldearen egiturari, batez ere, perkusioan. Honako hauek izan ziren Incansableseko kide: Luis Mari Berasategi "Tate" (txindatak) hernaniarra, Ignacio Legarreta "Larra" (dunbala) andoaindarra, Carlos García "Karloti" hernaniarra, Angel Mari Otamendi "Popeye" (kaxa) tolosarra, José Javier Gómez de Segura (tronpeta) oreretarra, eta Jesús Moneo (tronpeta) tolosarra -gaur egun txaranga jarraitzen du-, "Sietemesinos"-i duoak egiteko.



Indarberriturik eta inguruko txaranga berrien agerpenak bultzaturik, Tilosetako kioskoeko lokal batean entseatzeko hasi ziren, era sistematikoan, beren musika errepertorioa zabaltzeko eta hobetu nahian. Garai hartan hasi ziren txaranga batek modu profesionalan lan egiteko behar zituen oinarriak finkatzen. Hau da, aurretik zuten leloari kontra eginez, alegia "dirua amaitu arte", azken hogeita bost urteotan festen egutegiak estutuz joan dira, eta baita ordutegiak ere, hitzartutako leku guztietan konplitu beharra dago, jan-edana eta loa zaindu, alde batetik bestera mugitzeko furgoneta gidatu ...

Incansablesek ehun abesti inguruko errepertorioa darabil uda oro, eta hori entzuleen gustuko izan dadin, hura moldatzen eta entseatzeko ematen dute negua. Guztiok dakigunez, ezinbestekoa da abestiak egoki gauzatzea, eta horretan beti nabarmendu izan da txaranga hau, baina partituren prestaketa eta moldaketa ere garrantzi handikoak dira. Harrigarria izan da beti Incansables txarangak bost haizezko musikari eta perkusiozko hiru izanik edozein eratako abestiak, baita kontzertuetakoak ere, zuzenean, kalean bertan, egokitzeo eta

gauzatzeko izan duen abilezia. Batez ere "Tate" eta "Canario"ri esker entzun ahal izan ditugu moldatutako hainbat pasodoble, jota, bals eta abar.

Sortzaileetarikoa izan zen "Pipas"ek 1981ean taldea utzi zuen, eta haren ordezkari izan ziren Lorenzo Indakoetxea (Orereta) lehenik, eta Andoni Elo-segi (Andoain) ondoren. "Pipas" eta "Zapa" eza-gutu zireneko istorioa nahiko xelebrea da. Billabonako festak ziren, eta han giro ona zegoela ikusi-rik, "Zapa"k kaxa bila Hernanira itzultzea erabaki zuen, ondoren Billabonan, dunbala, txindatak eta turuta zituzten beste lagun batzuekin kalejiran ibiltzeko asmoz. "Pipas" inguruan zebilen beste musikari batzuekin, baina aipatu berri dudana taldera igaro eta herri guztia dantzari jarri zuten beren doinu alaiekin. Hiru egunen ostean, Herna-

nin zebiltzala, "Zapa" falta zela eta, haren bila joan ziren ... Geroztik, Txatarra txarangaren lehen irteeran, 1964an, elkarrekin aritu eta, aurrerantzean, banaezin bihurtu ziren.

Garai hartan txaranga herrikoiek indar handia zuten Hernanin, horien artean daude Beti Gezur, Beti Jaten, Beti Ola, Txatarra, Beti Lagun, Desberdinak, Xalaparta edo Beti Egarriak, besteak beste. Batez ere Sanjoanetan agertzen ziren, eta ohikoa zen Incansableseko musikariak talde horietan aurkitzea.

Azken urteotan garai batean baino aldaketa gehiago izan dira taldearen egiturari. Hala ere, taldea uzten duten gehienek taldeari lotuta jarraitzen dute, eta, behar izanez gero, beti daude laguntzeko





Incansables Euskal Herriko Itzulietan 1981 eta 1994. urteetan.

prest, eta horrek txarangaren baitan nolabaiteko egonkortasuna mantentzeko aukera ematen du. Orain arte aipatu ditugun izen guztiez gain badira taldeko partaide izan diren beste hainbat ere, perkusioan, esaterako, Juan Mari Zabaleta "Soro", Urko Arozena, Mikel Roperio, Unai Zabaleta eta Igor Ruiz aritu dira. Saxoarekin: Luis M. Moreno "Pirata", Jose M. Mendibil "Tximin" edo Ibon Mendibil. Tronboia eta/edo bonbardinoarekin, berriz, Eugenio Delgado, Aitor Troitño edo Tomás Lazkano, eta tronpetarekin, Mikel Iriarte.

Txaranga sortu zenetik, guztiok dakigunez, hogeita hamabost urte igaro dira, eta gaur egun arteko emanaldiak ugariak izateaz gain, mota askotakoak izan dira. Hernanin egin diren ospakizun guztietan parte hartu dute trukean ezer eskatu gabe, esaterako, Ikastoletako festetan, kirol ekitaldietan (errugbia, eskubaloia, futbola... omenaldietan (Martin Zabaletari Everesteko gailurrera heldu ondoren egin zitzaion ongi etorria) eta baita Euskal Herrian zehar ere: Kilometroak, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Ibilaldia...

Hogeita urtez Euskadiko 6 Orduak girotzen aritu dira, hurrenez hurren, eta Euskadiko Txirrindulari Itzulian, berriz, hogeita lau urtez aritu dira.

Ezinezkoa litzateke Incansables txarangak urte hauetan guztietan girotu dituen herri guztiak banan-banan aipatzea, hala ere, badira urtez urte, hutsik egin gabe, errepikatzen dituztenak: Hernani eta Tolosako Inauteriak, Hernaniko Sanjoanak, Andoaingo Santa Kruzak, Bergara, Lesaka, Bera, Leitza, Tafalla, Benavente, Donostiako danborrada, Baltierra, Kalagorri, Ergobia...

Emanaldi bereziak ere izan dituzte, besteak beste, Mont de Marsanen. Frantziako lurralde horretan zezen plazan pasodobleak Udal Musika Bandare-

kin batera jotzeaz gainera, gobernadoreak antolatutako festa batean parte hartu zuten. Britainian ere egonak dira, Saint Nazaren hain zuzen, antzoki batean bertako agintarien aurrean jo zutelarik. Espainian barrena, berriz, Valladoliden egonak dira, Gabonetako Erregeen desfilean Erdi Aroko jantziak zituztela. Beraz, ikus daitekeenez, askotariko konpromisoak bete ditzake talde honek.

Esan beharra dago, bestalde, gaur egun musikaren alorreko eskaintza oso zabala den arren, eta herriko festak gozatzeko modua aldatuz doan arren, musika bereziki CD eta DVDetan biltzen den arren, eta taberna, pub edo diskotekek zuzeneko musikarekiko duten norgehiagoka gorantz doan arren, oraindik ere, badirela hainbat plaza, herri eta leku txaranga giroa garai batean bezain beste bizi dituztenak. Kronika honetako protagonisten iritziaren arabera, horietarikoak dira Leitzako festak, Tolosako inauterietako astelehenak, eta Sanjoanetan. Hernaniko koadrila eguna nahiz goizaldean egiten diren kalejirak.

Hogeita hamabost urtetan zehar herriz herri ibili ondoren, Incansableseko kideek kontatzeko dituzten istorioak ugariak dira, elkarrekin hainbat eta hainbat bitxikeria ikusi eta jasan behar izan baitituzte. Horietariko batzuk aipatu ditugu, beste batzuk ohikoak dira: dunbalaz ahaztea, musika tresnaren pita galtzea eta abar. Jarraian gure belarrietara iritsi diren lehen urteetako zenbait gertaera aipatuko ditugu.

Behin, Orion, *Txatarra* txarangarekin jotzen ari zirela, Miguel Lujanbio jatorra uretara erori eta berehala atera behar izan zuten.

Jakina da, baita ere, "Zapa" k larruzko petatxodun kaxa jotzen zuela, eta dendan plastikozko petatxodun kaxa ikusten zuen bakoitzean begiak atera

beharrean jartzen zitzaizkiola. Azkenik, "Tate" eta "Canario" ren artean kaxa erosi zioten.

Anastasios taldearekin Kanarietara joan zirenean, berriz, "Zapa" hiru egunez galdurik ibili zen, eta hanka itsusjienen lehiaketa batean parte hartu zuen.

Incansables txarangaren sorreraren hogeita bosgarren urteurrena zela-eta, 1995eko ekainaren 18an, merezimendu osoz, omenaldia antolatu zen. Bertara taldeko musikari izandako gehienak, ia guztiak, agertu ziren. Joaquín Ortega "Canario" k egun horretarako "Leitzako herriari" pieza ondu zuen, eta txarangak herriari eskaini zion, eskerrak emateko. Jatorrizko partitura Leitzako herriari eman zitzaion, eta alkateak hartu zuen herriaren izenean.

Era berean, 2003. urtean, Bergaran jaso zuten omenaldia, musika dela-eta harreman estua izan baitute urte askotan. Ekitaldiko une hunkigarriena Incansables eta Udal Musika Bandak elkarrekin kontzertua eskaini zutenekoa izan zen.

Aurten bertan, Hernaniko Sanjoanetako preludioan, aipamen berezia egin zen Incansablesen hogeita hamabosgarren urteurrenagatik. Txarangak preludioan parte hartu zuen eta gerturatu ziren ikusleen txaloak eta esker ona jaso zituzten.

Incansablesek hiru LP eta hiru CD grabatu ditu, urteetan zehar taberna eta elkarteetan etengabe entzun ahal izan diren abestiekin. Gainera, beste hainbat txarangarentzat oso lagungarriak izan dira, haien errepertorioa zabaltzeko aukera eman baitute, gure herrietako kaleetan entzun ahal izan dugunez. Hala ere, ez dezagun alde batera utzi Incansables txarangaren doinuak zuzenean entzun, dantzatu eta gozatzeko aukera. Kalean.

